

UDALBATZAREN BURUARI

Talde Popularraren bozeramaile Miren Albistur Garmendiak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikuluan oinarrituta, MOZIO hau aurkezten du Udalbatzak azter dezan, uztailaren 9an Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) igandeetan Matia kalea ixteari buruz egindako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

2017ko maiatzean, igandeetan Matia kalean ibilgailuen zirkulazioa ixtea erabaki zuen Udal Gobernuak. Proba bat zela esanez justifikatu zuen erabakia, hau da, lortutako ondorioak ikusi nahi zituela bide hori modu iraunkorrean oinezkoentzat jartzeko aukerari begira.

Erabaki horren bidez, kaleaz jabetu eta hiritarrek oinezkoentzako beste gune batez gozatzeko aukera izatea ere nahi zuen, aldi berean, Antiguo auzoko kale nagusi horretako merkataritza eta ostalaritza jarduera sustatuz.

Hasieratik, zalantza asko agertu zituzten auzokoek eta merkatariek, ez baitzeuden ados neurri hori martxan jartzearekin. Orduan, Udal Gobernuak Matia kalea proba pilotu moduan ixteko konpromisoa hartu zuen, eta esan zuen urtebetera aztertuko zituela ondorioak, hartu beharreko erabakiak hartzeko.

Gure talde politikoak gertutik jarraitu ditu igandeetan Matia kalean trafikoa debekatzeari lotutako ondorioak, eta Gobernuari eskatu dio atzera egin dezala urtebeteko proba pilotu zabal horretan, guneko auzotar eta merkatariei kalte egiten dielako. Izan ere, neurri polemiko hori martxan jarri zenetik, jarduera murriztu egin da kalean.

, Neurri horrek izandako eragin negatiboen ondorioz, orain hilabete batzuk, kalearen itxiera ordutegia aurreratzeko asmoa iragarri zuen Udal Gobernuak, eta ekainaren hasieran auzokoekin eta merkatariekin biltzeko konpromisoa hartu zuen, esperientzia baloratzeko eta erabakitzeko ea igandeetan itxita jarraitu, neurri hori bertan behera utzi edo aldaketaren bat egin.

Batzordean egindako interpelazioan, zinegotzi ordezkariak azaldu zuen ekainean bildu zela auzokoekin eta merkatariekin, proba pilotua ebaluatzeko, eta ondorioak ez zirela positiboak auzoan. Hain zuzen, Mugikortasuneko ordezkariak berak esan zuenez, bertaratu zirenen artean, pertsona bakarra agertu zen esperientziaren alde.

Proba urtebetera ebaluatzeko konpromisoa hartu ostean eta ebaluazio hori erabat negatiboa izan ostean (kaltetuen beraien esanetan), harrigarria da Udal

Gobernuak orain esatea azken urtean hirian izan den eguraldi txarragatik ez dela gune hori oinezkoentzako espazio moduan erabili (beste urteetan euririk egingo ez balu bezala). Udal Gobernuaren nahia da igandeetan eta jaiegunetan Matia kalea ixten jarraitzea udazkenean eta neguan ere, ea norbaitek noiz erabiliko Matia kalea oinezkoentzako gune moduan, Udal Taldeak nahi bezala.

Ikusi dugu gaur egungo Udal Gobernuak etengabe aldatzen dituela irizpideak; ikusi dugu EAJk eta PSEk martxan jarritako esperientzia pilotua porrot hutsa izan dela, eta, hala ere, neurria beste hilabete batzuetan luzatzeko asmoa dutela; eta ikusi dugu gune horretako auzokoen eta merkatarien iritzia erabat kontrakoa dela (gure gobernuaren burutazioen ordaintzaile); horiek horrela, uste dugu hiritarrei eta zentzuari kasu egiteko garaia dela dagoeneko, eta ez dela tematu behar arrazoitzen zailak diren neurriekin aurrera egiten. Horregatik, **MOZIO** hau aurkezten du Talde Popularrak:

1.- Donostiako Udalbatzak alkateari eta Gobernu taldeari eskatzen die, behin igandeetan eta jaiegunetan Matia kalean trafikoa ixteko urtebeteko proba gaindituta, izandako porrota ikusita eta neurriak eragin dien auzotar eta merkatariei gehien aurkako iritzia entzunda, ez dezatela jarraitu neurri horrekin eta hemendik aurrera ez dezatela itxi Matia kaleko trafikoa igande eta jaiegunetan.

2.- Donostiako Udalbatzak alkateari eta Gobernu taldeari eskatzen die jakinarazteko auzokoei eta merkatariei igandeetan eta jaiegunetan Matia kalean trafikoa ixten ez jarraitzeko asmoa duela Udalak.

Donostian, 2018ko uztailaren 13an

Miren Albistur Garmendia,
Talde Popularraren bozeramailea.